

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala****2020an merkataritzarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak**

Alkateak 2019ko abenduaren 20ko 4811 dekretuaren bidez 2020ko merkataritzarako dirulaguntzak emateko oinarriak onetsi zituen. Hona hemen:

MERKATARITZARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

| | |
|---------------------------------|--|
| Diru-laguntza lerroa | MERKATARITZARAKO DIRU-LAGUNTZAK |
| Aurrekontu-partida | 23431077101 |
| Partidaren deskribapena | T. KAP.: ENPRESA, MERKATARITZA ETA OSTALARITZA |
| Zenbatekoa | 30.000,00 euro |
| Diru-laguntza emateko prozedura | ZUZENEAN EMATEA |

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Basauriko Udalak udalerriko xehekako merkataritza berriztatzeko eta haren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin emandako diru-laguntza ekonomikoak zuzenean emateko deialdia.

2. Aplikazio-eremua

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak honako gastu hauek finantzatzeko izango dira: instalazioetan egindako inbertsioak; merkataritzako enpresak ekipatzea eta berriztatzea; eta enpresa horien irudia, lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.

Diru-laguntza jasotzeari begira, ez da ekipamendutzat joko establezimenduaren ekoizpenerako zuzen-zuzenean erabiltzen dena (adibidez: solariumeko makinak, plan-txak, ileapaindegietako ile-lehorgailuak, okindegietako labeak, eta abar), ez bada xehekako merkataritza inbertsio hori egin behar duela aplikagarri zaion araudiak xedatutakoa betetzeko.

3. Onuradunak

1. Oinarri hauetan jasotako laguntzak jaso ahal izango dituzte 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza-establezimenduak berri edo modernizatzeko obrei ekiten dieten pertsona fisikoek, pertsona juridikoek edota ondasun-erkidegoek. Era berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte 2019an zehar diru-laguntza eskatu, eta, aurrekontu-kontsignazioa agortu izanagatik, berau eskuratu ez zutenek (baldin eta eskabidea epez aurkeztu bazuten, eta eskabide horri oinarriotan eskatutako dokumentazio guztia erantsi bazioten). Azken kasu horretan, aukera izango lukete 2020ko diru-laguntzak jasotzeko.

- Enpresa txikia izatea. Zentzu horretan, eta Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, enpresa txikiak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak: egoitza soziala Basaurin duten enpresak edo, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerririk batzuetan izan arren, enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusten dutenak; gehienez ere 50 langile dituztenak; eta urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra dutenak. Enpresaren datuak zehazteko, aintzat hartuko da ea enpresa autonomia den ala, Gomendioaren irizpideen arabera, mendeko enpresa edo enpresa elkartua den. Horrelakoetan, datuak zehazteko kalkulua 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera egingo da.



- Jarduera profesionalen 64., 65., 66., 67. eta 68. ataletan jasotako jarduera izatea, 646., 652.1. eta 655. salbu. Sailkapen horretan jasotakoez gain, jarduera horien 97. atalean jasotakoak ere onuradunak izan daitezke.
- Egoitza soziala Basauri udalerrian izatea edo, salbuespenez, egoitza beste udalerri batzuetan izan, baina enpresa garatzeko proiektuaren kokapena Basauri izatea aurreikustea.
- Herri Administrazioekiko zerga-zorrik ez izatea, eta, era berean, egunean egotea Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan. Merkataritza Atalak egiaztatuko du, ofizioz, ea Basauriko Udalarekiko zerga-zorrik dagoen ala ez.
- Enpresa eratuta egotea eta merkataritza-jarduera bat izatea, bi urteko gutxieneko antzinasunarekin. Hasiera-data izango da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman zeneko eguna.
- Aurreko ekitaldian diru-laguntzarik jaso ez izana (beraz, 2019an diru-laguntza jaso dutenek ezingo dute beste diru-laguntzarik jaso 2020ra arte). Salbuespena: diru-laguntza eskabidea 2019an aurkeztu, eta, aurrekontu-kontsignazioa agortu izanagatik, 2020ra arte izapidetu ezin izan diren eskabideak.

2. Merkataritza-jardueraren titulartasuna aldatzen bada jarduera eskualdatu delako, haren forma juridikoa aldatu delako edota jarduera lehenagotik zegoen enpresa batengandik bereizi delako, bi urteko epea ez da berriro zenbatzen hasiko: eutsi egingo zaio aldaketa gertatu baino lehen hasitako zenbaketari. Merkataritza-jardueraren titulartasun aldaketa onartuko da, bakar-bakarrik, familiazko oinordetza edota langileei egindako oinordetza bada, edota titulartasun-aldaketa dakarren forma juridiko aldaketa dela eta. Aitzitik, ez dira zerga-arrazoiengatik, zio juridikoengatik edota arrazoi pertsonalengatik forma juridiko aldaketak onartuko, baldin eta jabeak berdinak badira.

4. Kanpo utzitakoak

1. Aparteko kasuetan salbu, ezin izango dute Diru-Laguntzen Plan honetan parte hartu beste erakunde batzuen (Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza) diru-laguntza programetan parte hartzen ari direnak.

Edozein kasutan, kanpo geratuko dira jarraian adierazitako enpresa-jardueri dagozkien talde edo atal hauexek:

- 646. epigrafea: «tabako-lanen eta erretzaileentzako gauzen xehekako merkataritza».
- 652.1 azpiepigrafea: «Farmaziak: botiken, osasun-produktuen eta norbere higienarako produktuen xehekako merkataritza».
- 655. azpiepigrafea: «erregaien eta lubrifikatzaileen xehekako merkataritza».

2. Era berean, ulertuko da kanpo daudela Administrazioaren erakunde, sozietate publiko edota elkarteak, bai eta elkarte edo taldeak, interes ekonomikoko erakundeak eta aldi baterako enpresa elkarteak salbu.

5. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

1. Diruz lagunduko dira 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako gastu eta inbertsioak. Laguntza jasoko dute, era berean, 2019an eskabidea aurkeztu, eta diru-laguntzarik jaso ez zuten eskabideak, hain zuzen ere, merkataritza-instalazioetan ekipamenduan eta modernizazioan egindako gastuak, eta enpresen irudia, lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.

2. Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak dira oinarri hauetan jasotako kontzeptu batzuei banaka-banaka atxikita egoteaz gain, garapen-proiektu bakoitzeko aholkularitza-prozesuan gomendatutako edo proposatutako jarduerekin bat datozenak, hau da, merkatuaren enpresa-garapen prozesuaren barruko jarduera-estrategia zehatz bati dagozkion gastuak (merkatu berrietan sartzea, berrikuntzak produktuan/prozesuan, IK-Tetara egokitzea, eta abar).



3. Zehazkiago, honako hauek hartuko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat:
- Merkataritza-lokalen barrualde eta kanpoaldea egokitzeko lanak: esparrua atontzea, lokalaren distribuzioa aldatzea edota lokalaren itxura hobetzea. Kasu honetan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
 - Mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztupo arkitektonikoak kentzeko egindako berritze lanak. Kasu honetan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
 - Establezimenduan segurtasun eta irisgarritasun neurriak ezartzeari dagozkionak.
 - Makineria elektronikoa edo mekanikoa.
 - Merkataritzako altzariak eta ekipamendua erostea.
 - Informatika eta software ekipoak, baldin eta establezimenduan bakarrik erabiltzeko badira, hau da, salmenta-puntuko terminal bati edo horren pareko gailu bati badagozkio. Gainera, beharrezana egokiro argudiatu beharko da.
 - Aholkularitza taldeak kontratatzea merkataritzako kalitate-arauak ezartzeko edota arau horiek egiaztatzeko.
 - Argizatzerak, erakusleihen-apainketarako teknika berritzaileak ezartzera edota salmenta-puntua diseinatzera eta girotzera bideratutako baliabideak optimizatzea.
 - Negozioaren kudeaketaren alorreko prestakuntza, jabeena zein langileena, baldin eta erakunde ofizial batek edota onetsitako erakunde eskarmentudunak ematen badu.

6. Diru-laguntza jaso ezin dezaketen kontzeptuak

Honako gastu hauek diru-laguntza hauetatik kanpo geratuko dira:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez bada enpresari gastua eragiten diola. Hala bada, egiaztatu egin beharko da, Foru Ogasunaren egiaztagiria aurkeztuta.
- Lokala erostetik eratorritakoak.
- Ibilgailuak eta salgaiak erostetik eratorritakoak.
- Merkataritza-jardueraren berezko elementu suntsikorrei dagozkienak (poltsak, erroiluak, eta abar).
- Enpresaren jarduera bera osatzen duten zuzeneko ekoizpen-tresnei dagozkienak (oinarrien 2. atalean jasotakoak, adibidez: okindegietako labeak, ileapaindegietako ile-lehorgailuak eta plantxak, solariumetako makinak eta tresna estetikoak, eta abar).
- Tebistak edota tabletak erosteagatikoak.
- Jarduerarekin zuzenean eta modu eskusiboan lotuta ez dauden informatika-pakete edo ofimatika-programak eskuratzeagatikoak.

7. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak egiteko, dagozkion eskabide-orria aurkeztuko da Basauriko Udaleko Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan, edota Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1 Legearen 39/2015. artikulua baimendutako edozein bide erabilita. Eskaria aurkezte hutsagatik, interesdunak Oinarri hauetako edukia onartzen duela joko da. 2020an, eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da merkataritza-establezimendu bakoitzeko.

8. Eskabideak aurkezteko epea

1. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean, eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Era berean, eskabidea 2019an zehar aurkeztu, eta ordainketa jaso ez dutenek, ez dute eskabide berririk aurkeztu beharko eta lehentasuna izango dute.

**9. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Establezimendu bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da bakarrik. Eskabideei honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkie:

- a) Egindako inbertsioen, berritzeen edo erosketen memoria txiki bat.
- b) Enpresa txikiak definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitortpena, Oinarri hauen 3. artikuluan jasotzen denaren arabera. Zentzu horretan, Oinarriotako II. Eranskinean agertzen den dokumentua bete beharko dute eskatzaileek.
- c) Gizarte Segurantzako Diruzaintzak egindako egiaztagiriaren jatorrizkoa, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik eta/edo Langile Autonomoen Erregimen Berezitik ondorioztatutako kuoten ordainketekin egunean egotea egiaztatzen duena.
- d) Enpresak zerga-obligazioak dituen Administrazio Publiko guztiek emandako egiaztagiriaren jatorrizkoak, enpresa zerga-betekizun horiekin egunean dagoela egiaztatzen dutenak.
- e) Sozietateen kasuan, eskabidea egiten duen pertsona sozietatearen ordezkari gisa ari dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, sozietatearen IFK eta pertsona fisikoaren NANA edota lan-baimena.
- f) Hirugarrenaren fitxa, eskabidea egiten duen denda edo enpresaren banku-datuak jasotzen dituena. Fitxak, enpresaren kontua dagoen finantza-erakundearen zigilua eduki beharko du.
- g) Oinarri hauetan diruz lagun daitezkeen kontzeptu bezala jasotakoak kostuak ordaintzeko enpresak egindako edo egin asmo dituen finantziario-eskariei buruzko aitortpena. Aitorpen hori III. Eranskineko eredu erabilita egingo da.
- h) Basauriko udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena, IV. Eranskinari jarraituta.
- i) Diruz lagun daitezkeen, eta benetan ordainduak izan diren gastuak agertzen dituzten fakturen eta ordainketa-agiriaren jatorrizkoa eta kopia. Diru-laguntza eskatzen den urteko data izan beharko dute fakturek eta ordainketa-agiriek
- j) Obra-lizentzia, eta tasa ordaindu izanaren agiria (atontze-lanak egiten diren kasuetan).

2. Baldin eta ez balitz eskatutako dokumentazio osoa aurkeztuko, Basauriko Udalak enpresari eskatuko dio hutsegiteak zuzentzeko edota falta diren agiriak aurkezteko. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari, jakinarazpena jasotzen duen datatik zenbatzen hasita. Hala xedatzen du Herri Administrazioen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztuko ez balitz, eskatzaileak uko egin duela joko da, eta eskabidea artxibatu egingo da.

Halaber, Basauriko Udalak beharrezkotzat jo lezakeen dokumentazio gehigarria eska lezake, enpresa eskatzaileak egitasmo honetan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuta ahal izateko.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa

Oro har, Basauriko Udalak gastu edota inbertsioen %40 finantzatuko du, eskaerako 1.000 euroko mugarekin. Ordea, establezimenduan egindako inbertsioaren xedea bada mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztupo arkitektonikoak kentzeko lanak egitea, edota establezimendua irisgarriagoa egiteko neurriak ezartzea, Basauriko Udalak gastu eta inbertsioen %50 finantzatuko du, eskaerako 1.200 euroko mugarekin.

Aipatutako zenbatekoak %10 igoko dira, hau da, %50 edota %60raino heldu ahal izango dira —inbertsioaren izaera zein den—, egoitza fiskala edota establezimendua Basaurin duen enpresa batek ematen badu dena delako zerbitzua. Gehienezko kopuruak, berriz, aurreko atalean adierazitakoak izango dira.



Diru-laguntza horiek ez dira itzuli behar izango.

Establezimenduan egindako inbertsioaren xedea bada mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak egitea eta establezimendua irisgarriagoa egiteko neurriak ezartzea, Udalak finantzatuko duen zenbatekoa %10 handitu ahal izango da, eskaerako 1.200,00 euroko mugarekin, betiere.

Hala eta guztiz, oro har, oztopo arkitektonikoak kentzeko lanei edota irisgarritasuna hobetzeko neurriak ezartzeari dagokionez, Udalaren ekarpena %50era edo %60ra ere helduko da, baldin eta beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua, barrualdeko obrak edota dena delako zerbitzuaren kontratazioa, egoitza fiskala edo establezimendua Basaurin duten enpresekin egiten bada.

11. Enpresa onuradunen betebeharrak

Diru-laguntza hauek jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoez honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Diru-laguntzak erabiltzea beren xede diren kontzeptu eta zenbatekoetarako; eta diru-laguntzok adierazitako epeetan erabiltzea.
- b) Basauriko Udalak egin ditzakeen egiaztatze-jarduerak eta dagozkion finantza-kontrol jarduerak onartzea.
- c) Basauriko Udalarari jakinaraztea xede bera duten diru-laguntzak edo bestelako laguntzak jaso direla, edota diru-laguntza hau emateko aintzat hartuak izan diren beste edozein inguruabar objektibo zein subjektibotan egondako aldaketak. Horretarako, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da.
- d) Jarduera ekonomikoa egotea diru-laguntza jaso duen establezimenduan, gutxienez, urtebetez (diru-laguntzak eman ziren datatik zenbatzen hasita). Establezimendua adierazitako epea baino lehenago itxiko balitz, enpresa onuradunak Udalarari jakinarazi, eta emandako diru-laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko dio, jarduera eten denetik urtebetea amaitu arte doan zatia, alegia.
- e) Enpresak establezimenduak baditu udalerrri barruan eta kanpoan, inbertsioak, herriko establezimenduan egin beharko dira. zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz inbertsioa Basauriko establezimenduan egingo dela.

12. Aurrekontu-izendapena

Basauriko Udalak, 2020ko ekitaldian zehar, 30.000,00 euro bideratuko ditu deialdi honetako diru-laguntzetarako, honako partida honen kontura: 23431077101, T. Kap: enpresa, merkataritza eta ostalaritza. Ekonomia- eta merkataritza-sustapena.

13. Diru-laguntzak ordaintzea

Onuradunak, egindako gastuak zuzitzeko, dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak aurkeztuko ditu. 600 euro-tik gorako fakturen ordainketak banku-agiri bidez egiaztatuko dira, bai transferentzia-egiaztagiriz bidez, bai helbideratze-egiaztagiriz bidez, bai horien parekoen bidez. Faktura bakarra aurkeztu beharko da, baldin eta diru-laguntza eskaeran hornitzaile beraren zenbait faktura badaude, eta horiek guztiek bat egiten badute merkataritza-establezimendu baterako inbertsio edo eskaera bakarrarekin: ezingo dira fakturak zatikatu, horietako bakoitzak 600 euro-ko zenbatekoa ez gainditzeko. Era berean, fakturok ordaindu beharko dira banku-transferentzia bidez, horiek helbideratuta edo pareko bide bat erabilita.

Aurrekontu-partidan jasotako izendapena agortzen bada ere, ez dira baztertuko 2019an zehar eskatutako diru-laguntzak, ezta 2018an zehar aurkeztu, eta aldeko ebazpena jaso eta gero, kreditua agortu izanagatik dagozkien diru-laguntzak jaso ez zituzten eskaerak ere. Horiek guztiak hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, kasuan-kasuan hala ezarriko balitz.

**14. Araudi aplikagarria**

Prozedura arautuko dute onetsitako Oinarri Arautzaileek beraiek; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak; eta udal diru-laguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

15. Onuradunei buruzko informazioaren isilpekotasuna

Basauriko Udalak bere gain hartzen du diru-laguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko konpromisoa.

Basaurin, 2020ko urtarrilaren 8an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren



I. ERANSKINA / ANEXO I
MERKATARITZA SUSPERTZEKO LAGUNTZAK
AYUDAS PARA LA REVITALIZACIÓN DEL COMERCIO

| | |
|--|--|
| Eskatzailea / Solicitante | |
| NANa / DNI | |
| Telefonoa / Teléfono | |
| Helbide elektronikoa Correo electrónico | |

Aurkeztutako dokumentazioa / Documentación que se aporta

- Memoria deskribatzailea / Memoria descriptiva.
- NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI.
- Sozietatearen IFK, eta eskaera egiten duen pertsonak duen ordezkartza egiaztatzen duen agiria. Fotocopia del CIF de la Sociedad y documento que acredite la representación que ostenta la persona solicitante.
- Basauriko Udalak egindako hirugarrenaren fitxa, banku-datuak jasotzen dituenena. Ficha de tercero del Ayuntamiento de Basauri donde constan los datos bancarios.
- Enpresa txikiak definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitortpena. Declaración jurada relativa al cumplimiento de los requisitos que definen a la pequeña empresa.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egindako egiaztagiraren jatorrizkoa, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik edota Langile Autonomoen Erregimen Berezitik ondorioztatutako kuoten ordainketekin egunean egotea egiaztatzen duena.
Certificado original expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social, acreditativo de encontrarse al corriente de pago de las cuotas derivadas del Régimen General y/o del Régimen Especial de Trabajadores Autónomas de la Seguridad Social.
- Enpresak zerga-obligazioak dituen administrazio publiko guztiek egindako egiaztagirien jatorrizkoak, enpresa zerga-betekizun horiekin egunean dagoela egiaztatzen dutenak
Certificados originales expedidos por todas las Administraciones públicas con las que la empresa tenga obligaciones de carácter tributario, en el que se acredite que la misma está al corriente de dichas obligaciones.

Emandako izaera pertsonaleko datuak «EXPEDIENTES COMERCIO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundearen dirulaguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariaz aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deuseztatzea eta datuon aurka egitea) egikaritu ahal dituzula, bi modutan: Segurtasuneko arduradunarekin harremanean jarri (lopd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES COMERCIO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lpd@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido a la oficina del Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).



II. ERANSKINA / ANEXO II

**ENPRESA TXIKIAREN BALDINTZEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN JURADA DE REQUISITOS DE PEQUEÑA EMPRESA**

| | |
|---|--|
| Enpresa / Empresa | |
| Enpresaren izena / Razón social | |
| IFK / CIF | |
| Ordezkaría (Abizenak eta izena) Representante (Apellidos y nombre) | |
| NANa / DNI | |

Enpresa txikia izatea. Zentzu horretan, Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenak izaera hori dutela joko da.

Tener la consideración de pequeña empresa. En este sentido, y siguiendo las Recomendación 2003/361/CE de la Comisión Europea, tendrán esta consideración las que reúnan los siguientes requisitos:

- Gehienez ere 50 langile izatea / Que su plantilla no supere los 50 trabajadores.
- Urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra izatea.
Que su volumen de negocios anual o su balance general no supere los 10 millones de euros.

Enpresaren datuak zehazteko aintzat hartu da ea enpresa autonomoa den ala, gomendioaren irizpideen arabera, mendeko enpresa edo enpresa elkartua den. Datuak zehazteko kalkulua egin da 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera.

Para la determinación de los datos de la empresa se ha tenido en cuenta si se trata de una empresa autónoma o si, de acuerdo con los criterios de recomendación, concurre en ellas la condición de empresa asociada o vinculada. La determinación de los datos se ha realizado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6 de la recomendación 2003/361/CE.

Eskatzaileak adierazten du, halaber, Basauriko Udalak hala eskatuko balu, haren esku jarriko lukeela aurreko hori egiaztatzeko dokumentazioa.

Asimismo, manifiesta que en caso de ser requerido por el Ayuntamiento de Basauri para ello, pondría a su disposición la documentación que así lo acredita.

Basaurin,(e)koren ...(e)(a)n / En Basauri, a ... de de
Sin. / Fdo.

Emandako izaera pertsonaleko datuak «EXPEDIENTES COMERCIO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundeen dirulaguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariaz aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deuseztatzea eta datuon aurka egitea) egikaritu ahal dituzula, bi modutan: Segurtasuneko arduradunarekin harremanean jarri (lopd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES COMERCIO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lopa@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido a la oficina del Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).



III. ERANSKINA / ANEXO III

BESTE DIRULAGUNTZA ESKAERA BATZUEI BURUZKO AITORPENA
DECLARACIÓN SOBRE OTRAS SOLICITUDES DE SUBVENCIÓN

| | |
|---|--|
| Enpresa / Empresa | |
| Enpresaren izena / Razón social | |
| IFK / CIF | |
| Ordezkaría (Abizenak eta Izena) Representante (Apellidos y Nombre) | |
| NANa / DNI | |

ZERA AITORTZEN DU / DECLARA:

- Ez duela eskatu, ez diotela eman eta ez duela aurreikusi eskaera honen xede den proiektuari lotutako dirulaguntzarik eskatzea inongo administraziori edo erakunde publiko edo pribaturi (nazionala edo nazioarteko izan).
Que no ha solicitado ni obtenido, ni tiene previsto solicitar ningún tipo de ayuda relacionada con el proyecto objeto de esta solicitud de ninguna Administración, Ente público o privado, nacional o internacional.
- Administrazioari edo erakunde publiko edo pribatuei (nazionalak edo nazioartekoak), eskaera honen xede den proiektuari lotutako dirulaguntzaren bat eskatu diela, halakorik lortu duela edo halakoak eskatzea aurreikusi duela.
Que ha solicitado, obtenido o tiene previsto solicitar algún tipo de ayuda relacionada con el proyecto objeto de esta solicitud de la Administración, Ente público o privado, nacional o internacional.

| Erakundea Entidad | Egitaraua Programa | Eskutatuko laguntza Ayuda solicitada | | Emandako laguntza Ayuda concedida | |
|----------------------|-----------------------|---|-------------------------|--------------------------------------|-------------------------|
| | | Data Fecha | Zenabatekoa Cantidad | Data Fecha | Zenabatekoa Cantidad |
| | | | | | |

ETA HONAKO KONPROMISO HAU HARTZEN DU / Y SE COMPROMETE:

Basauriko Udalari idatziz jakinarazteko, dagozkion jakinarazpenak jaso eta 15 eguneko epean, eskaera honen xede den proiektuarekin edo horren zati batekin lotuta eskatutako edo jasotako laguntzaren gaineko edozein aldaketa, dirulaguntza horiek erakunde publiko, pribatu, nazional edo nazioarteko bati eskatutakoak edo emandakoak badira ere. Halaber, konpromisoa hartzen du diru-laguntza eskatu duen edozein erakunde publikori ere horren berri emateko.

A comunicar al Ayuntamiento de Basauri en el plazo de quince días a partir de la fecha de recepción de las correspondientes notificaciones, cualquier modificación sobre la ayuda solicitada o recibida, pública o privada, nacional o internacional, en relación con el proyecto objeto de esta solicitud o parte del mismo. Asimismo, se compromete a ponerlo en conocimiento de toda Entidad pública a la que haya solicitado algún tipo de ayuda.

Basaurin,(e)koren ...(e)(a)n / En Basauri, a ... de de

Enpresaren sinadura eta zigilua / Firma y sello de la empresa

Emandako izaera pertsonaleko datuak «EXPEDIENTES COMERCIO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundeen dirulaguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariaz aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deuseztatzea eta datuon aurka egitea) egikaritu ahal dituzula, bi modutan: Segurtasuneko arduradunarekin harremanean jarri (lopd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herriarren Arreta Zerbitzuko bulegoari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES COMERCIO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lopa@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido a la oficina del Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).



IV. ERANSKINA / ANEXO IV

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE**Aitortzailea / Declarante**

| | |
|--|--|
| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | |
| NANa / DNI | |
| Helbidea / Dirección | |
| Herria / Localidad | |
| PK / CP | |
| Probintzia / Provincia | |
| Noren izenean egiten da eskaera? ¿En representación de quién se realiza la declaración? | |
| Elkartearen izena / Nombre de la entidad | |
| Elkartearen IFZ / CIF de la entidad | |

2020an Merkataritza Atalak emandako dirulaguntzak eskatzeko xedez, zera aitortzen dut:

- Ez daukadala Basauriko Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10.artikuluari ezarritako debekurik.
- Ordezkatzen dudak dendak ez daukala Basauriko Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik.

A efectos de solicitar la subvención del Área de Comercio del año 2020, declaro:

- Que no me encuentro incurso/a en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 10 de la Ordenanza para la concesión de subvenciones municipales del Ayuntamiento de Basauri.
- Que el comercio al que represento, no se encuentra incurso en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 10 de la Ordenanza para la concesión de subvenciones municipales del Ayuntamiento de Basauri.

Basaurin,(e)koren ...(e)(a)n / En Basauri, a ... de de

Sinadura / Firma

Emandako izaera pertsonaleko datuak «EXPEDIENTES COMERCIO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundearen dirulaguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariaz aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deuseztatzea eta datuon aurka egitea) egikaritu ahal dituzula, bi modutan: Segurtasuneko arduradunarekin harremanean jarri (lopd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES COMERCIO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lopa@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido a la oficina del Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).



V. ERANSKINA / ANEXO V
ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Aitortzailea / Declarante

| | |
|--|--|
| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | |
| NANa / DNI | |
| Helbidea / Dirección | |
| Herria / Localidad | |
| PK / CP | |
| Probintzia / Provincia | |
| Noren izenean egiten da eskaera? ¿En representación de quién se realiza la declaración? | |
| Elkartearen izena / Nombre de la entidad | |
| Elkartearen IFZ / CIF de la entidad | |

Indarreko araudiak xedatzen du eskatutako dirulaguntza 3.000 eurotik beherakoa denean, eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu ahal izango duela, Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez duela egiazta-zeko erakunde eskudunen ziurtagiriaren orde.

Beraz, zera aitortzen dut:

- Ordezten dudana elkartea ez daukala zorrik Gizarte Segurantzarekin edota Ogasun Publikoarekin, eta ez duela haienganako betebeharririk.
- Ez daukadala zorrik Gizarte Segurantzarekin edota Ogasun Publikoarekin (persona fisikoentzat).

Según lo dispuesto en la normativa vigente de aplicación, en el caso de que la cuantía de la subvención solicitada no sea superior a 3.000 euros, el/la solicitante podrá sustituir las certificaciones, emitidas por los organismos competentes, de estar al corriente en sus obligaciones con la Hacienda Pública y con Seguridad Social, por una Declaración Responsable, en el caso de que la cuantía de la subvención a otorgar no supere el importe de 3.000 euros.

Por lo tanto, declaro:

- La entidad a la que represento se halla al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social y con la Hacienda Pública, o, en su caso, carece de obligaciones.
- Me hallo al corriente de mis obligaciones con la Seguridad Social y con la Hacienda Pública (Para personas físicas).

Basaurin,(e)koren ...(e)(a)n / En Basauri, a ... de de

Sinadura / Firma

Emandako izaera pertsonaleko datuak «EXPEDIENTES COMERCIO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundearen dirulaguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariaz aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deuseztatzea eta datuon aurka egitea) egikaritu ahal dituzula, bi modutan: Segurtasuneko arduradunarekin harremanean jarri (lopd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES COMERCIO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lopa@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido a la oficina del Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa, 52, Basauri, Bizkaia).

**VI. ERANSKINA / ANEXO VI
HIRUGARRENAREN FITXA / FICHA DE TERCERO**

- Alta / Alta
 Aldaketa / Modificación

1 Datu orokorrak / Datos generales

| | | | |
|---|----------------------|---|----------------------|
| NAN-IFK / DNI-CIF | | Izen-abizenak — Sozietatearen izena / Nombre y apellidos — Razón social | |
| <input type="text"/> | | <input type="text"/> | |
| Helbidea / Domicilio <input type="text"/> | | | |
| Udalerría / Municipio | <input type="text"/> | PK / CP | <input type="text"/> |
| | | Probintzia / Provincia | <input type="text"/> |
| Telefonoa / Teléfono | <input type="text"/> | Faxa / Fax | <input type="text"/> |
| | | E-posta / E-mail | <input type="text"/> |

2 Banku-datuak / Datos bancarios

| | | | | |
|--------------------------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|
| Erakundearen izena Nombre entidad | <input type="text"/> | | | |
| Swift BIC kodea Código Swift BIC | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| IBAN kodea Código IBAN | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |

DILIGENTZIA: Behean sinatzen duenak aurrean zehaztutako datuen erantzukizuna (datu orokorra zein bankukoena) hartzen du bere gain. Datuok adieraziko dute egin beharreko ordainketak zein kontu eta FINANTZA ERAKUNDEren bidez egingo diren eta, horrenbestez, Basauriko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango bertan gerta daitezkeen akats nahiz hutsegiteengatik.

DILIGENCIA: El/La abajo firmante se responsabiliza de los datos detallados anteriormente, tanto generales como bancarios, que identifican la cuenta y la ENTIDAD FINANCIERA a través de las cuales se desean recibir los pagos que puedan corresponder, quedando el Ayuntamiento de Basauri exonerado de cualquier responsabilidad derivada de errores u omisiones en los mismos.

Sinatuta / Firmado: NAN / DNI: En calidad de: den aldetikData / Fecha:

Sinadura eta zigilua / Firma y sello

3 Finantza-erakundearen egiaztatzea / Certificado de la entidad financiera

| | |
|--|--|
| Honen bidez goian aipatutako kontuaren titularraren datuak zuzenak direla adierazten da. | Indicando la conformidad de los datos de el/la Titular de la cuenta arriba indicada. |
| Data / Fecha: | Sinadura eta zigilua / Firma y sello |

| | | |
|-------------------------|-------------------------------------|---|
| Diruzaintza / Tesorería | Tel. 944 666 314 / 944 666 305 Faxe | E-posta / E-mail: tesorería@basauri.net |
|-------------------------|-------------------------------------|---|

Datuak Babesteko Legeak xedatutakoaren arabera (15/1999 LO), inprimaki honetan jasotako datuak fitxategi automatizatu batean gordeko dira, Udal honen barruko eginkizunetarako, bakar-bakarrik, erabiltzeko xedez. Titularrak datuok zuzentzeko eskubidea izango du, Legean adierazitako moduan.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley de Protección de Datos (L.O. 15/1999), los datos recogidos en este impreso serán incorporados a un fichero automatizado con la exclusiva finalidad de su uso dentro de este Ayuntamiento. El/La titular de los mismos puede ejercer su derecho de rectificación o cancelación, en los términos de la Ley,